

Bilbon, 1999ko abenduaren 16 eta 17an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, euskaltzainburuordea,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Charritton,
A. Iñigo,
X. Kintana,
B. Oihartzabal,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi
eta A. Urrutia euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea.
Arratsaldean: P. Goenaga, P. Altuna
eta Miren Azkarate.

1999ko abenduaren 16an, Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamaiketan hasi da bilera. Ezkerreko zutabea jasotzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute, 16ko goizeko bilkurara P. Altunak, P. Goenagak eta Miren Azkaratek. Erabateko ezin etorria adierazi dute, berriz, J. L. Davantek, X. Diharceek, E. Larrek eta P. Ondarrak.

Zorionak emanaz.

Martin Ugalde euskaltzain ohorezkoari zorionak bidaltzea erabakitzen da, atzo, Donostian, Euskal Herriko Unibertsitateak "Honoris causa doktoretza" eman ziolako.

Pedro Migel Etxenike eta Juan Jose Goirienari ere zorionak bidaltzea proposatzen du euskaltzainburuak eta onartzen da, atzoko Euskal Herriko Unibertsitateko ekitaldian biok omenduak izan baitziren.

Idazkariorde-kudeatzaileak, era berean, aditzera ematen du, nola joan den larunbatean, Baionan, J. Haritschelhar euskaltzainburuari *Lapurdum* aldizkariaren 4. alea, ohiz kanpoko, bere omenez aurkeztu zioten, Jean Baptiste Orpustan euskaltzain urgazlea delarik horren zuzendaria. Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoari ere Gipuzkoako Diputazioak aurtengo Anton d'Abbadia saria emango dio; honi ere zorionak igortzea erabakitzen da.

2000. urteko batzar egutegia.

Gai ordena aldaturik, 2000. urterako batzar egutegiari lotzen zaio jarraian. J.L. Lizundiak irakurtzen du txostena, banan-banan datak eta ospakizunak zehaztuz. Laburbilduz, ospakizunetan, maiatzaren 5 eta 6an, Legazpiko Udaletxean, hileroko batzarraz gain, Gerhard Bähr euskaltzain urgazle eta euskalariaren mendeurrena ospatuko da; maiatzaren 26 eta 27an, hileroko batzarra eta Andres Iñigoren sarrera hitzaldia, Iruñean edo Iturenen; irailaren 29 eta 30ean, Zizur Txikian, *San Fermin* ikastolaren eskariz, eta *Nafarroa Oinez* dela eta, hileroko batzarra eta jardunaldiren bat; abenduaren 28an eta 29an, egoitzan, hileroko batzarra eta VI. Herri Literatura Jardunaldiak, eus-

kal esapideei buruz eta Justo Maria Mokoroaren omenetan. Horrez gain, udaberri beranduan hiztegi-gintza-lexikografiaz jardunaldiren bat antolatzea onartu da. Hileroko batzaren gainontzeko zerrenda eranskinean ikusten da. P. Charritton Iparraldeko ordezkariak “in voce” iradokizun bat egiten du eta hau da: uztailearen 21ean, Goienetxe Donibane Lohizuneko auzapez euskaltzale eta idazlearen heriotzako mendeurrena dela, eta, nahiz eta idazle oparoegia ez izan, bera izan zela Euskal Tradizioa eta Euskal Lore Jokoen sustatzailea. Bilduen ustez ongi letorke Lapurdiko kostako hiri horretan bilera egitea. Onartzen da proposamena eta, beraz, aldaketa horrekin birresten da datorren urteko batzar egutegia.

Hizkuntz arauak

1. Hiztegi Batuko *tabako-to* zerrendan erabakizun gelditzen ziren hitz bi azterten dira. *Tatarrez* onartu da eta *telekomando*, oraingoz, ez onartzea erabaki da. Bigarren hitz hau dela eta, komenigarritzat jotzen da, datorren urtean egingo diren hiztegi-gintza jardunaldietan gaur egun hainbeste erabiltzen diren hitz modernoek, zer trataera beharko luketen jorratzea.

2. *Tobera-triskatu* hitz-zerrenda amaitzen da: *traditu* onartzen da saldu-saldukeria adierazteko; *trafiko* onartzen da, merkataritza eta drogena adierazteko; *tragedia* onartzen da; trahitu e. **traditu**; *tregoa* onartzen da, lerro berean, *menia / su-etena / gudu-etena*.

Bilbao-Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindiaren lau literatur sariak banatzeko, 12,30etan, bilkurak eten bat izan du. *Txomin Agirre eleberria saria*: Aitor Arana Lauzuriagak irabazi du; *Toribio Alzaga antzerkikoa*: Mikel Ugalde Ugartek; *Felipe Arrese Beitia olerkikoa*: Juan Luis Zabala Artetxek eta *Mikel Zarate saiakerakoa*: Joxe Manuel Odriozola Lizarribarrek.

Arratsaldean, lauak bost gutxitan, berriro ekin dio lanari batzarrak, hiztegi batu-ko zerrendak aztertuz.

3. *Triskilatu-tzartasun* zerrenda.

Lehenbizi X. Kintanaren oharrak jarri dira mahai gainean.

Troinu sarrerari, ohargileak eskatu bezala, adiera gehitzea onartu da: ‘korapiloa’.

Troskismo/troskista idazkeraren ordez *trotskismo* eta *trotskista* ezartzea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

Trosta hitzeko adibidea aldatzea onartu da. Batetik, **trosta trostan dabil zaldia, ez lauhazka** emango da, eta, azpisarrerara gisa, **trostaka** adlag. ‘trostan’.

Txadon hitzari g.g.e. oharra ezartzea eskatzen du Kintanak. Hitza zerrendatik ezartzea erabaki da azkenean.

Txakolin hitzaren ondoan “txakoli* e. **txakolin**” sarrera ipintzeko eskaria ez da onartu, beharrik ez delakoan.

Txapeloker sarreran lagunarteko hitza dela adieraziko da eta, adiera ematerakoan ‘guardia zibila’ ezarriko da, bi hitzetan.

Txarpoil hitzari ‘ezkaia’ adiera duela erantsiko zaio.

Txindor hitzari, berriz, *Bizk.* oharra gehituko zaio.

Txip hitzaren sarrera zuzentzea ere onartu da: **txip** *Informat* ezarriko da, zerrendan datorrenaren kontra, hemen *xip* forma onesten baita.

In voce ohar gisa, *txangurro* ezartzea eskatu du Kintanak zerrendan ageri den *txangurru*-ren ordez. Lekukotasun gehienak, ordea, *txangurru*-ren aldekoak direnez, ez da onartu oharra. Beraz, lehengoan utzi da.

Kintanak **Ubarroi-yuppie** zerrendari egindako oharrak aztertu dira ondoren. Ikus aurrerago, agiri honetan.

Andres Urrutiak aurkeztutako oharren eztabaidak, berriz, honako emaitza izan du:

Tronu hitzaren azpisarrera gisa lehen ageri ziren *tronugabetu*, *tronugabetze*, *tronuratu* eta *tronuratze* hitzekin zer gertatu den galdetzen du ohargileak. Aski lekukotasunik ez, nonbait, eta bertan behera utzi ditu batzordeak. Bigarren itzulirako geratu dira.

Ttan hitza sartzea onartu da, *adkor* oharraz hornitua.

Ttota sartzea ez da onartu.

Tuberkulu hitza hasiera bateko zerrendatik nolatan "erori" den galde egiten du ohargileak. Bigarren egunean ikusteko utzi da.

Tutik hitza, alfabetoaren arabera dagokion lekuan ezarriko da.

Txainku eta *txandarma* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Ohargileak *txantaje/txantaia* auziaren aurrean zerbait esatea eskatzen du. Eztabaidatu ondoren, *xantaia* forma ematea onartu da.

Txikit-en parean *txikitandik* ere gehitzea ez da beharrezko ikusi.

Txindi sarrerari hirugarren adiera bat ('dirua') gehitzeko eskaria ez da onartu.

Txintik hitza, alfabetoaren arabera dagokion lekuan jarriko da.

Huts grafikoak zuzentzea ere onartu da: *tximu*, *tximitx*, *txip* eta *txitxi* sarreretan agertu behar dutenak h. edo e. dira, puntuz hornituak, alegia.

Txitxi-ren azpisarrera gisa, *txitxi(-)burruntzi* hitza ematea onartu da.

Txoriburu hitzari ere zerrendan leku egitea onartu da.

Txula hitza sartzea ez da onartu. Izatekotan, hurrengo itzulian.

Txurrun ere bigarren itzulirako utzi da.

Eztabaidarako utziak ziren hitzak hartu dira ondoren solasgai:

Tona/tuna auzia berehala ebatzi da: "tuna* *Zub.* e. **tona-2**" ezarriko da zerrendan. Ondorioz, *tunatu* sarrera ere kendu egin da.

Txakur/zakur eztabaidari ekin dio ondoren batzarrak. Eztabaidan baterako eta besterako argudioak erabili dira. Gero, bozketa egitea proposatu da, erabakigarria izan gabe, iritziak nondik norakoak diren ikusteko. Beldur izatekoa zen bezala, 7-7 izan da bozketaren emaitza. Horrenbestez, bigarren egunerako utzi da kontu hau, datu gehiago izateko esperantzan.

Txigortu/xigortu eztabaidatu eta bozkatu da ondoren. Hemen emaitza argiagoa izan da: zortzi boto *txigortu*-ren alde eta lau *xigortu*-ren alde. Horrenbestez, *txigortu* forma onartu da.

Eztabaidak hartu duen bidea ikusirik, Miren Azkarate andreak ohar bat egin du, hots: ondo ikusten duela banan-banan egitea, baina gero dena batera ikusi beharko litzatekeela. Ontzat eman da.

Bide beretik, *tximino/zimino* auziaz eztabaidatu da. Datuen arabera, *tximino* da nagusi. Bozkatu da eta hona emaitza: *tximino* formaren alde 9 boto, bi *zimino*-ren alde eta beste bi boto, zuri. Hortaz, *tximino* ematea erabaki da.

Txistera/xistera bikotearen aurrean, berriz, honako erabaki hau hartu da: 11 botogatik, *xistera* forma hartuko da 'pilota-jokoko tresna' adierarekin. Hitz horren beste adierak bigarren itzulirako utzi dira.

Txanka eta *txota* sarrerren inguruan ere izan da eztabaida. Lehenbizikoaren sarre-ra honela utzi da: **txanka** 1. *Bizk.* 'hanka'; 2. pl. 'makuluak'; 3. 'karta'. *Txota*, berriz, honela uztea erabaki da: **txota** *Heg.* 'txanka' (karta).

Eta honenbestez, bilera eten egin da, arratsaldeko zazpitan.

* * *

Abenduaren 17an, goizeko hamarrak eta erdietan, ekin dio, atzera, lanari Euskal-tzaindiak.

4. *Ubarroi-yuppie* zerrenda.

Xabier Kintanaren oharren eztabaidaren emaitza honako hau da:

Ubarroi-ren orde zuzenago irizten dio ohargileak *uherroi* formari. Baina testuetan ageri dena *ubarroi* denez, ez da onartu oharra.

Udara hitzari "e." edo "h." oharrak zor zaizkiola uste du ohargileak. Ez da onartu.

Udare eta *madari* parekotzat ematea ez da onartu. Gainera, Charritton jaunaren ustez, *udare* dira fruitu guztiak. Ezer ez aldatzea erabaki da.

Uger sarreran hirugarren adiera bat gehitzea onartu da: 3. e. **igeri**.

Uhaitz sarrera aldatzea ez da onartu.

Uharka sarrerari 'ibaietako presa' adiera gehitzea eskatzen du ohargileak. Baina esangura horrekin ageri dena *uberka* forma omen da. Hala ere, honela ematea onartu da: 1. adieran *adlag.* dela esango da eta bigarren adieran, berriz, *iz.* kategoriakoa dela eta 'urtegia' adiera duela.

Ugazaita, *ugazalaba* eta *ugaz-seme* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Uhin hitzari beste adibide bat gehitzea onartu da: *itsasoko uhinak*.

Umeteria sarrerari *g. er.* oharraren ordezt, *Bizk.* erantsiko zaio, ohargileak eskatu bezala.

Kintana jaunak, zerrendak dioenaren kontra, *umore* eta *umorista* *h*-rekin nahi litzuzke. Bozkatu ondoren, bederatzi botoz gauzak dauden bezala uztea erabaki da.

Unai formaren ordezt *unain* ematearen aldeko eskaria ez da onartu. *Unai* forma baita nagusi testuetan. Dena dela, 'behizaina' dela erantsiko zaio.

Untxi formaren ordezt *untxe* ezartzea ez da onartu, forma nagusia zerrendan ageri dena baita.

Urpekontzi eta *urre-bits* hitzak sartzea ez da onartu.

Urrikaldu sarreran honako adibide hauek ipiniko dira: *jauna, urrikal zakizkit; nagusia urrikaldu zen mirabe hartaz*.

Urrikalgaitz sartzea ez da onartu.

Urrin 'usain ona' barik 'usaina, eta bereziki txarra' jartzeko proposamena ez zaio onartu ohargileari.

Urritx-en ordezt *hurritx* eskatzen du Kintanak. Ez da onartu.

Urrutizkin hitzari "g.g.er." oharra gehitzea onartu da.

Urtats-en ordezt *urtatse* emateko arrazoirik ez du ikusi batzarrak eta ez da onartu oharra.

Ur-txakur-en sarreran eskaintzen diren adierak atzekoz aurrera ematea onartu da: 1. 'arrantzaleei txalupetako lanetan laguntzen dien txakurra'. 2. 'igaraba'.

Zerrendan esaten denaren kontra, Kintanak *Urtzi* forma gordetzea proposatzen du jainkoaren izen gisa. Ez da onartu.

Uztargi-ren grafia zalantzarria zaio ohargileari. Nahiago luke *s*-duna. Dena dela, hitz hau badirudi Larramendiri zor zaiola. Horrenbestez, ez da onartu oharra.

Ohargileak *whisky* hitzaren azken letrak duen arazoaren aurrean (*whisky*, baina *whiskia*, *whiskirik* eta abar beharko luke) zerbait adieraztea eskatzen du. Denak *-i* letraz amaiturik ematea erabaki da.

Xagu eta *xaguxar* formak ez gaitzesteko eskaria ez da onartu.

Xamar eta *txamarra* ez dira gauza bera. Horregatik, ez da onartu aldaketarik. Hala ere, *Ipar.* ez ezik, *Naf.* ere badela adieraziko da.

Xarmagarri-ren ondoan *xarmagarri* ere jartzea ez da onartu.

Xehe-ren sarrerako adibidea zuzentzea onartu da: *azalpen aberatsa eta xehea* izango da adibide zuzena.

Xerlo sarrerari adiera erantsiko zaio: 'ile sorta'. Horrezaz gainera, *Zah.* oharra ere gehituko zaio.

Xitu barik *txitu* behar luke, ohargilearen arabera. Ez da onartu proposamena.

*Txopa/*xopa* bikotearen aurrean eredutzat *popa* nahiago luke ohargileak. Ez da onartu.

Xukadera sarrerari 'esku-zapia' adiera gehituko zaio.

Xularme hitzari "g.g.er." oharra erantsiko zaio.

Zerrendan hitz asko dira, Andres Iñigoren ustez, Iparraldeko ez ezik Nafarroakoak ere direnak. Horrenbestez, zerrendako zenbait hitzi *Ipar.* eta *Naf.* oharra ezartzea onartu da. Hona hemen hitz horiek: *ulitxa*, *urin*, *urindatu*, *urineko*, *urinezatu*, *urintsu*, *urrikitu*, *usaia*, *xahutu*, *xamar-I*, *xardina*, *ximiko*, *xingar*, *xoratu*, *xorrotx* eta *xuxen*. Hau dela eta, Charritton jaunak gauza bera egiteko proposatu dio Iñigori A letratik aurrera. Onartu du.

Bestalde, zerrendan *uzker* hitzari egotzen zaion erabilera esparrua ere aldatzea erabaki da: *Bizk.* ez ezik, *Ipar.* ere badela adieraziko da.

H. Knörr jaunaren oharren azterketaren emaitza honako hau izan da:

Udamin sartzea ez da onartu. Bigarren itzulirako utzi da. Ez dago argi nola erabiltzen den.

Ufaka sartzea erabaki da, adlag. dela esanaz.

Ugazaita bigarren itzulirako uztea erabaki da. Ez dago argi adiera. Hobe eremu horretako hitz guztiak (*aitabitxi*, *aitaponteko*, *ugazaita* eta abar) batera aztertzea. Beraz, hurrengorako.

Uhertu hitzaren adiera figuratua aipatzeko eskaria ez da ontzat eman.

Ukabilkari hitza *boxeolari*-ren parean jartzea ez da onartu.

Ukaldi-ren azpisarrera gisa *telefono ukaldi*-ri leku egiteari ez dio batzarrak zuzen iritzi. Beraz, dagoen dagoenean uztea erabaki da.

Ume-ren azpian *ume jende* azpisarrera gehitzea ez da premiazko ikusi.

Umel sarrera argitze aldera, honela uztea erabaki da: **umel** 1. *Bizk.* 'fruitu heldu-heldua'. 2. *Bizk.* 'hezea'.

Umoretsu sartzea onartu da.

Uneoro-ren falta somatzen du ohargileak. Ez du batzarrak hala ikusi, sintagma gisa ematekoa baita: *une oro*, alegia.

Upatz bigarren itzulirako utzi da. Aldaera asko ditu.

Upelategi-ren ordez *upeltegi* ematea onartu da.

Urdinxka hitzari adiera gehitzea eskatzen du Knörr jaunak. Ez da beharrezko ikusi, automatikoa baita.

Urezta(ga)ilu sartzea ez da onartu.

Urmael-en ordez *urmahel* jartzeko eskaria ez da onartu.

Urpeko sarreraren kategoria marka jarriko da: **urpeko** iz. 'itsaspekoa'.

Urrieta zubereraren eremutik landa ere erabilia dela uste du ohargileak. Dagoen bezala uztea erabaki da.

Urrikaldu hitza "batez ere *Ipar*." dela esango da.

Urrun-en azpian *urrundik* ez esapidea aipatzea eskatzen du ohargileak. Bigarren itzulirako utzi da.

Urruntxo, *urrunxko* eta horrelako diminutiboak sartzea ez da onartu.

Urte askotako esapidea sartzea ere ez da beharrezko ikusi.

Urtebete sarrera adibidez hornitzea eskatzen du Knörr jaunak, erabilera argitze-ko. *Urtebete*, *hilabete* eta *astebete* ez dira berdin erabiltzen. Horregatik, gaia Gramatika batzordera bidaltzeko proposamena egin da hasieran, baina gero adibideak ematea erabaki da. *Urtebete*-ren sarreraren honako hau emango da: *urtebete pasatu zuen Ameriketan*, eta honen parean, gaitzetsia, beste hau: *urtebete bat egon zen gaixorik** e. *urtebete egon zen gaixorik*. *Astebete*-k ere modu berean jokatzen du. Beraz, hala adieraziko da dagokion lekuan. *Hilabete*-ren kasuan, berriz, biak onartuko dira: *hilabete egon zen gaixorik*; *hiru hilabete egon zen gaixorik*.

Uste-ren sarrera argiago eman behar litzatekeela uste du ohargileak, **usten det* eta honen kidekoei bidea ixteko. Baina zerrendan ematen den informazioarekin aski dela iritzi diote euskaltzainek.

Uxo-ri sarrera beregaina ukatzen dio ohargileak. Ez da ontzat hartu eskaria.

Uxual(a) eta *uztarkari* hitzak sartzea ez da onartu.

Xabal dagoen bezala utzi da.

Xah letra xehez ezartzea onartu da.

Xartatu, *xarto* gehitzea ontzat eman da: *xartatu** e. **txertatu**; *xarto** e. **txerto**.

Xehe hitzari zerrendan ematen zaizkion adierez gainera beste bat eskatzen du ohargileak (*emazte xeha* bezalakoei leku egiteko). Ez da beharrezko ikusi ezer erans-tea.

Xenda hitzean *Naf.* eta *Zub.* dela adieraziko da.

Xendra-ri, berriz, *BN*, *L* oharra ezarriko zaio *Ipar*-en orde. Eta, ondorioz, *B* letran ageri den *bidexenda*-ren orde, *bidexendra* ezarriko da.

Zerrendan *xiberera* hitzean "h. zuberera" ezartzea ez du bidezko ikusten Knörr jaunak. Dagoen bezala uztea erabaki da, hala ere.

Ximenki bigarren itzulirako utzi da, adibide gutxi eta adiera asko baititu, antza.

Xirribikari sartzea ez da onartu.

Xixte hitza ere bigarren itzulirako uztea erabaki da. Orobat, *xorte* hitza ere.

Yate-ren parean, forma hobetsi gisa, *laket-ontzi* ematea nahi luke ohargileak. Ez da onartu. *Yate* hitzaren formaz, berriz, gero eztabaidatuko da.

Andres Urrutia jaunaren oharren eztabaidaren emaitza honako hau izan da:

Ubazter sarreran ‘ur-bazterra’ ageri da, baina honek *ur*-en azpisarrera gisa *ur-bazter* agertzea eskatzen du. Onartu da.

Udazale sartzeko proposamena ez da onartu.

Ugalkor-en azpisarrera gisa *ugalkortasun* sartzea onartu da.

Ugazama bezala, *ugazaita*, *ugazalaba* eta abar sartzea ez da onartu oraingo, gauzak aski ilun baitaude.

Ukigaitz bigarren itzulirako utzi da.

Une-ren azpisarrera modura, *unean-unean* eta *unean-uneko* sartzea onartu da. Honekin batera, aldian-aldiko sartzea ere onartu da. Aldiz, *tokian-tokian* kendu egingo da.

Unekada eta *upagintza* hitzak sartzea ez da onartu.

Urbanizatu eta *urbanismo*-ri buruz eztabaida piztu da. Azkenean, *urbanismo* bigarren itzulirako uztea erabaki da. *Urbanizatu*, berriz, botoetara eraman da: sartzearen aldeko agertu dira bederatzi euskaltzain; bostek kontra bozkatu dute eta batek zuri. Beraz, *urbanizatu*-ri leku egingo zaio zerrendan.

Urinketa eta *urraspide* bigarren itzulirako utzi dira.

Urajauzi marratxorik gabe zergatik ageri den galdetzen du ohargileak. Marratxoa ezartzea onartu da: *ur-jauzi*.

Xaratila-ren ordez *txaratila* forma hobesten da zerrendan. Hala ere, *txaratila* hau ez da ageri inon zerrendatua. Zuzentzea onartu da.

Xilografia zerrendaratzeta proposatzen du Urrutia jaunak, nazioarteko hitza dela eta. Hala onartu da.

Iñigo jaunak, ahoz, *udal-barruti* hitzari ere leku egitea proposatzen du. Andres Urrutiak, hala ere, arazoak daudela uste du, *udal-mugarte* hitzak ere kurritzen baitu, nonbait. Iñigoren proposamena bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketa horrek: sartzearen alde, sei boto; kontra, lau, eta bi zuri. Gauza ez da, horrenbestez, argitu. Andres Iñigoren eta Andres Urrutiaren artean txostena prestatuko dute eta txosten horren arabera hartuko da erabakia hurrengoan.

Ondoren, Miren Azkaratek eskatu du *xaflakor* hitza zerrendatik kentzea. Gaizki eraturtako hitza omen da. Kentzea erabaki da.

Azkenik, eztabaidarako utzitako hitzak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Umegorri sarreran “batez ere *Bizk.*” oharra ezarriko da eta “peior.” dela ere bai.

Urguilu eta *urguilutsu* hitzei *Ipar.* oharra gehituko zaie.

Xango hitza honela uztea erabaki da: **xango**-1 *Ipar.* ‘txanka (karta)’.

Xehela hitza ere iparraldekoiei galdetzeko markatua dator zerrendan. Honako hau erabaki da: xehela* e. **xeila**. Honen sarrera, berriz, honela utzi da: **xeila** *Ipar.* ‘kereta’.

Xirimiri dela eta, hona hemen hartutako erabakia: xirimiri* e. **zirimiri**. Eta sirimiri* e. **zirimiri**.

Yate formari buruzko eztabaida etorri da ondoren. Sarasola jaunak *iote* forma proposatzen du. Hitz kentzea ere proposatu da. Azkenean, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Yogur hitzaren eztabaida *jogurt* formaren alde erabaki da. Beraz, hitz hau *J* letraren azpira eramango da.

Xigortu/txigortu eztabaida bigarrenaren alde erabakia denez, sarrera guztiak (*xigor*, *xigorgailu*, *xigorki*, *xigortu*) erabaki honen arabera ezarriko dira (e. *txigor*, *txigorgailu*, *txigorki*, *txigortu*) bere lekuan.

Eztabaida luzea izan da *txakur/zakur* auzia dela eta. Batetik, *zakur* Bizkaian ez da erabiltzen. Bestetik, *txakur* zenbaitentzat adierazkorra litzateke. Bi sistema bateraezina daude aurrez aurre. Gauzak nola dabilzan aztertu ondoren, honako hau proposatu eta bozkatu da: **txakur** *Canis familiaris*; **zakur**, batez ere *BN*, *L* eta *Naf*. 'txakurra'; **xakur** *BN*, *L* eta *Naf*. Adkor. Hamabi euskaltzain agertu dira proposamenaren alde, kontra, bat, eta zuri bozkatu dute bik. Proposamena onartu da, horrenbestez.

Hurrengo eztabaida *txerri* hitzari buruzkoa izan da. Bozkatu den proposamena honako hau izan da: **txerri** *Sus scrofa*; **zerri** batez ere *Ipar*. eta *Naf*. 'txerria'; **xerri** *Ipar* eta *Naf*. Adkor. Proposamenaren aldeko 13 boto izan dira, kontrako bakarra eta zuri beste bat. Beraz, proposamena onartu da. Honen arabera, *txerri-bazka* hitzari *Ipar*. oharra kendu egin behar zaio. Bestalde, *txerritegi* hitza bere soilean utziko da *txerri-kortaren* balioakide dela esan gabe.

Zekor/txekor eztabaida *Z* letrarako utzi da.

Hemendik aurrerako lanaz zenbait xehetasun.

Lana ahalik eta eperik laburrenean burutu ahal izateko, zenbait neurri hartu beharra ikusi da. Aurreko zerrendak berrikusi beharra dago, batetik. Lan hori bideratzeko, lehen urrats gisa, Sarasolaren eta Adurizen artean A-E bitarteko zerrendak aztertuko dituzte egin beharreko ikutuak zein diren ikusteko. Bestalde, A. Urrutiak *nart*. oharra non sartu behar den erabaki ahal izateko, ohar hori legokiekkeen hitzen zerrenda prestatuko du.

Urtarrileko bileran *Z* letrako zerrenda aztertuko da. *Naf*. oharra behar duten hitzak zein diren ere ikusiko da gainerako berrikustekin batera. Nolanahi ere, *Z* zerrendari buruzko oharrak egiteko epea urtarrilaren 20a artekoa izango da.

Eta hilaren bukaeran BBV-koei gutun bat egingo zaie *Hiztegi Batua* zertan den azalduz.

Horrela amaitu da bi egun hauetako hizkuntza-arauen eztabaida.

Euskaltzainburuaren urrezko eztaiak.

Bilera amaitu aurretik, ordea, Haritschelhar jaunak adierazi du duela berrogeita hamar urte, gaurko egunez, ezkondu zela Colettekin Boulogne-Villancourt-en eta hori euskaltzainekin ere ospatu nahi duela, Euskaltzaindia izan baita beretzat bigarren fa-

milia. Bilduek zorionak eman dizkiote eta ordu biak hogeitun amaitutzat eman da bilera. Ondoren, *lunch*-a izan da urtemuga hori ospatzeko Euskaltzaindiaren egoitzan bertan, non euskaltzainez gainera bertako langileek ere parte hartu duten.

Euskaltzaindiaren informatika ezarpenaren aurkezpena.

Arratsaldean, lauetan hasita, Euskaltzaindiak azken hilabete hauetan informatika ezarpenari begira egindako lanaren emaitza aurkeztu da. Aurkezpena euskaltzainez zuzendua izan da, baina baita herri aginteei ere. Ekitaldi irekia izan da eta, euskaltzainez gain, Josune Ariztondo Hizkuntza Politika sailburuordea eta Gotzon Lobera Bizkaiko Diputazioko Euskara zuzendaria ere bileran izan dira. Lehendabizi, euskaltzainburuak hitz egin du, informatika ezarpena bideratu ahal izan bada, herri aginteen laguntzari esker izan dela adierazteko eta laguntza hori eskertzeko. Ariztondo andreak ere hitz egin du herri aginteen zeregina zein izan den azaltzeko. Ondoren, idazkariak hartu du hitza ekitaldiaren nondik norakoa azalduz. Euskaltzaindiak xahar antzeko itxura eman dezake, baina bizi-bizi jarraitzeko erabakia hartua duenez, ezinbestekotzat jo du gaurko teknologiak eskaintzen dituen baliabideak bereganatzea.

Ondoren, informatika ezarpenaren ezaugarri nagusiak azaldu zaizkie bilduei. P. Goenagak ezarpen hori nola egin den eta zertan datzan azaldu du lehenengo. Gero, prestatu den web-gunea erakutsi du: zer itxura duen, zer atal izango dituen eta abar. Urtarrilean sarean egon gaitezkeela adierazi du. Gero, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* migrazioa nola izan den azaldu du *Aurten Bai*-ko Andoni Unzalu jaunak eta hemendik aurrera lana nola egin ahal izango den arlo honetan. Euskal Herriko Atlasaren aurkezpen bat ere egin du, bildutako informazioa kudeatzeko eta jendearen esku jartzeko prestatu diren aplikazioen berri emanaz.

Arratsaldeko bostak eta erdietan amaitutzat eman da aurkezpen ekitaldi hau.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *